


Euskararen Gaitasun Agiria



EGA • FAQ

GALDERARIK OHIKOENAK



FAQ EGARI BURUZKO GALDERARIK OHIKOENAK

Aurkibidea

1. Zer da EGA?	3
2. Noiz sortu zen EGA?	3
3. Nork antolatzen du EGA?	3
4. Nolakoa da EGA?	4
5. Nolakoa da Atariko Proba?	5
6. Zelan zuzentzen da Atariko Proba?	7
7. Atarikoa gaintzeko langak, zergatik aldatzen dira?	7
8. Nolakoa da Proba Idatzia?	7
9. Zelan zuzentzen da Proba Idatzia?	8
10. Zelan kalifikatzen da Idazmena?	9
11. Nolakoa da Ahozko Proba?	9
12. Zelan kalifikatzen da Ahozko Proba?	10
13. Zein Agiri dira EGAREN baliokide?	10
14. Zenbat azterketaldi izaten dira urtean?	11
15. Azterketa batzuk beste batzuk baino zailagoak al dira?	11
16. Zenbat kostatzen da EGA egitea?	11
17. Zenbat kandidatu aurkezten dira?	12
18. Zenbatek gaintzen dute?	12
19. Nork egiten ditu azterketak?	12
20. Zer neurri hartzen dira azterketa-materialak egitean?	12
21. Zein da azterketa-materialen prozesua?	13
22. Nortzuk dira zuzentzaileak?	13
23. Zelan zuzentzen dira azterketak?	13
24. Zelan ziurtatzen da aztertzaileen arteko bateratasuna?	14
25. Egiten al da emaitzen analisisirik?	15
26. Erreklamaziorik egin daiteke?	15
27. Nafarroako eta Iparraldeko EGAK desberdinak dira?	16
28. EGA azterketa norberaren euskalkian egin daiteke?	16
29. Zer behar da EGA ateratzeko?	17
30. Notak gordetzen al dira?	17
31. Ezgaitasunak kontuan hartzen al ditu EGAK?	18
32. Nola agertzen da EGAREN azken nota?	18



1. Zer da EGA?

EGA siglak *Euskararen Gaitasun Agiria* esan nahi du. Hortaz, EGA agiria lortzen duena euskara behar bezala ulertzeko eta euskaraz adierazpenak egiteko gai da; gai da euskara behar bezala ulertzeko eta azaldu beharrekoak euskaraz azaltzeko. Gai da horretarako, ahoz zein idatziz. Hortaz, agiria lortu duen pertsona euskaldun betea dela aitortzen du EGAK.

Baina, zer da gai izatea? Hots, zer gaitasun maila bermatzen du EGAK?

Lehenengo eta behin, argi eta garbi esan behar da EGA ez dela jakintza arlo jakin baterako agiria; alegia, ez dela irakaskuntzarako agiri bat, ez itzulpengintzarako, ez kazetaritzarako, ez beste arlo berezituren baterako. EGAK ziurtatzen duena zera da: agiri horren jabe den pertsona behar bezain trebea dela euskaraz aritzeko: gauza dela komunikazioak ulertzeko eta bereak ere sortzeko eta adierazteko, eta hori guztia beste hartzailea edo entzulea mindu edo harritu gabe, komunikazio nahiko txukuna eta zuzena egiteko maila baduelako. EGAdun pertsonak gure hizkuntza badaki eta, gabeziak gorabehera, nahiko trebea eta zuzena da euskaraz diharduenean.

Modu teknikoagoan esateko, Europako Erreferentzi Marko Bateratuko (EEMB) mailaketaren arabera –sei graduko eskala–, EGAduna gai da 5. graduan; alegia, C1 mailako gaitasuna du.

2. Noiz sortu zen EGA?

1982an sortu zuen EGA Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Ordura arte beste erakunde batzuek ematen zituzten euskara agiriak: Euskaltzaindiak "D titulua" ematen zuen, Hizkuntza Eskola Ofizialek ere bazuten berea, Labayruk ere bai.

Agiriak ematearen ardura Eusko Jaurlaritzaren esku utzi zuen 1982an Euskaltzaindiak, eta Hezkuntza Sailaren bitartez EGA sortu eta bultzatu zuen. Horretarako, hasierako urte haietan hainbat hitzarmen eta koordinazio lan egin behar izan zen euskara irakasten eta, beraz, agiria lortzeko ikastaroak ematen zituzten euskaltegiekin eta beste zenbait erakunderekin. Agiri bateratu bat lortzea zen saio haien asmoa. Hots, ez zedila alde nabarmenik gertatu lurralde batetik bestera edo euskaltegien artean, ez eta matrikula irekia (librea) edo itxia (euskaltegien bidez) egiten zuten pertsonen artean. Orotarako batasun bat behar zuen agiri ofizial sortu berriak, eta bateratze bide horri ekin zitzaion. Hortik etorri ziren programa, azterketa materialak, aztertzaileak, zuzenketa irizpideak eta abar.

3. Nork antolatzen du EGA?

EAEko EGA Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ardura da, eta horren barnean Euskara Atalarena. Lakuatik koordinatzen da agiriaren inguruko guztia, hau da, EAEko hiru lurraldeen mailan: matrikulazioak, azterketa materialen prestakuntza, inprimaketa,



aztertzaileen izendapenak, argitalpenak, gora-jotzeak, eta abar.

Nafarroan ere bada EGA agiria, bertako erakundeen ardurapean. Baita Iparraldean ere: EEPk (Euskararen Erakunde Publikoa) du horren ardura.

4. Nolakoa da EGA?

EGA agiria lortzeko hiru proba edo azterketa mota gainditu behar dira:

Atariko Proba	Proba Idatzia	Ahozko Proba
---------------	---------------	--------------

Hurrenkera horretan egiten dira probak, eta batetik bestera igarotzeko proba bakoitza gainditu beharra dago. Ezin da Proba Idatzia egin Atarikoa gainditu gabe. Era berean, Ahozko Proba ezin da egin aurreko biak gainditu ezean.

ATARIKO PROBA da lehen fasea. 65 ariketa edo item dituen test erako azterketa da eta hori gainditzeko 46 erantzun zuzen eman behar dira. Azterketako 65 ariketak egiteko ia ordubeteko denbora tartea dago (50 minutu). Azterketa horren zuzenketan ez dute EGAKo aztertzaileek parte hartzen, irakurgailu optiko bidez ateratzen baitira emaitzak.

Nolanahi ere, azterketarien erdiak hurrengo probara igaro daitezten, 46ko langa hori mugikorra da.

PROBA IDATZIA da bigarrena. Bi atal ditu:

Ulermena	Idazmena
----------	----------

Hiru ordu eta bost minutuko denbora tartea dago bi ataletako ariketak egiteko.

Ulermena. Lehenengo atal horretan hiru ariketa daude: *Elkarrizketa-testua*, *Irakurmena* (bi testu labur eta bat luzea) eta *Lexikoa*.

Idazmena. Bigarren atalean ere hiru ariketa egin behar dira: *Idazlan luzea* (iritzi artikulua bat), *Idazlan laburra* (gutuna, gogoeta, hipotesia, txosten laburra...) eta *Esaldiak berriatzi* (10 egitura).

AHOZKO PROBA da azkena. Proba Idatzia gaindituz gero egiten da.

Entzutezkoaren Ulermena ariketa du proba horrek hasieran. Grabazio bat edo batzuk entzun behar dira, behin, eta entzundakoei buruzko galdera batzuei erantzun. Ariketa horrek 10 puntuko balioa du.

Ondoren, Ahozko Probako mintzamen saioak egiten dira, binaka:



Azalpena Elkarrizketa

Azalpena: informazio baten (testu bat) azalpen ariketa da, bost bat minutuan egin behar dena. Ariketa hori prestatu ahal izateko lehenago 20 minutuko denbora tarte bat ematen da, eta orri zuri batean gidoi bat edo apunte labur batzuk har daitezke, gero azalpenean erabiltzeko.

Elkarrizketa: proposaturiko gai baten inguruan eztabaida moldeko elkarrizketan jardun behar dute bi azterketariek, bien artean 10 bat minutuan.

Proba hori bi aztertzaileren aurreko saioa izaten da.

Honako hau da Proba Idatzia eta Ahozkoaren koadro orokorra:

PUNTUAZIO-TAULA					DENBORA	
Probak	Atalak	Atazak	Puntuazioa gehienez	Gaunditzeko gutxienekoa	Aurreikusitako denbora	Guztira (prestatze-lanak barne)
I D A T Z I A	1	1.- Elkarrizketa-testua	5	--	10 min	65 min
		2.- Lexikoa	5	--	10 min	
		3.- Irakurriaren ulermena	10	--	40 min	
	2	4.- Idazlan luzea	10	10	55 min	130 min
		5.- Idazlan laburra	10		35 min	
		6.- Esaldiak berridaztea	10	--	25 min	
Idatzia, guztira			50	27	195 min	
A H O Z K O A	1	1.- Entzutezkoaren ulermena	10	--	35 min	120 min gehienez
	2	2.- Ahozko azalpena	20	20	5 min bakoitzak	
		3.- Elkarrizketa	20		10 min bikoteak	
	Ahozkoa, guztira			50	25	45 min

5. Nolakoa da Atariko Proba?

Izenak dioen moduan, Atarikoa sarrera proba bat da, EGako probak (Idatzia eta Ahozkoa) egin ahal izateko.



Izan ere, EGARA aurkezteko baldintza bakarra 17 urte edukitzea izanik, azterketari kopuru handiak aurkezten dira. Eta aurkezten diren askotxo EGA mailatik urrun samar daude. Bada, horrek distortsionatu eta zailago egiten du EGA mailaren inguruan daudenen neurketa akademiko egokia.

Horregatik, Atarikoak EGA lortzeko bidea apur bat mugatzen du: Proba Idatzia eta Ahozkoa egiteko aukera ematen die gaitasun maila txukuna frogatzen duten azterketariei, ez denei. Beste era batera esanda, EGA lortzeko mailan edo mailaren inguruan dauden azterketariak bideratzen ditu Proba Idatzira.

Test erako azterketa da Atariko Proba, kandidatuen hizkuntz gaitasuna ahalik eta modu fidagarrienean neurtu behar duena. Horregatik, ahozko eta hizkuntza idatziko testuinguruen simulazio bat egiten du.

- Atarikoak 65 item edo ariketa ditu, aukera anitzekoak.
- Gainditzeko 46 item zuzen erantzutea eskatzen da; txarto erantzundakoengatik ez da punturik kentzen.
- Erantzun zuzen edo egoki bakarria dute ariketek.
- Euskara-maila txukuna dutenek gainditzeko moduko azterketa da. Ez du neurtzen arlo akademikoetako (Literatura, Historia...) jakituririk.

Atarikoa, sailka antolatuta dago; hots, honako osagaiak ditu:

Saila	Deskribapena	Kopurua
B	Ahozkoan oinarritutakoak (hiru azpisail)	24
C	Lexikoa	8
D	Morfosintaxia (lau azpisail)	20
E	Euskara batua jakitea	4
F	Hizkuntza idatziaren ulermena (bi azpisail)	9

B Ahozkoan oinarritutakoak (24). Hizkuntza mintzatuko egiturak: esaeren edo esamoldeen esanahia jakitea, zein testuingurutan erabiltzen diren, hots, egokitasuna. Eta bai atsotitz edo esaera zahar batzuk jakitea ere (esanahia, erabilera).

- B1 (Esamoldearen esanahia / Jarraipena) 12
- B2 (Erantzuna / Egokia / Hots-hitzak) 9
- B3 Atsotitzak edo errefraukak 3

C Lexikoa (8). Izenak (multzoka 'Zein dago tokiz kanpo?'), adjektiboak, hitzak definizioaren arabera, testuinguruari zein egokitzen zaion... Kanpo geratzen dira hitz bitxiak edo espezializatuak.

D Morfosintaxia (20). Gramatikaren ikuspuntutik landu ohi direnak sartzen dira,



lau multzotan, multzo bakoitzetik bost:

- D1 Deklinabidea, postposizioak, izenordainak, zenbatzaileak, nominalizazioak
- D2 Aditza. Denborak, baldintza-ondorioak, agente era...
- D3 Perpausak: koordinatuak, txertatuak, komunztadurak, galdegaia...; oro har, perpausen egituraketa zuzena eta egokia.
- D4 Partikulak (*ere, elkar, ohi, omen, egin, bide, -en burua...*) lokailuak eta antolatzaileak.

E Euskara batua (4). Ortografia, hitzen forma, euskara batuko adizkiak edo Euskaltzaindiaren arauak (egiturak, leku izenak...)

F Hizkuntza idatziaren ulermena (9).

- F1 Esaldi konplexuak behar bezala ulertzeko gaitasuna (esaldi luzeak eta zehatzak), enuntziatua beste molde batean adierazia.
- F2 Testu labur baten ulermena: 2 item.

Horra Atariko Probaren osagaiak. Horiek guztiak azterketan nahasturik ematen dira, baina adierazitako kopuruetan.

6. Zelan zuzentzen da Atariko Proba?

Atariko Proba irakurgailu optiko bidez zuzentzen da. Bi aldiz egiten da prozesua. Bigarrena, irakurgailuak antzemandako erantzun bikoitzak argitzeko, gaizki ezabatutakoak...

Eta erreklamazioa egiten den kasuetan, berriz zuzentzen dira, baina kasu horretan plantilla bat erabilita, eskuz.

7. Atarikoa gainditzeko langak, zergatik aldatzen dira?

Atarikoa gainditzeko langa finko bat dago. Hori berdintzen edo gainditzen duten azterketari guztiak –ez dago `numerus clausus`ik– aurrera egin dezakete, EGAKo Proba Idatzira. Edozelan ere, bigarren baldintza bat ere badago: gutxienez, azterketarien erdiek aukera izan behar dute Proba Idatzira igarotzeko. Hori dela-eta langa jaitsi egin daiteke, harik eta azterketarien erdiek gainditu arte.

8. Nolakoa da Proba Idatzia?

Proba Idatzia bi atal ditu:

Ulermena	Idazmena
----------	----------

Hurrenkera horretan egiten dira probak, eta batetik bestera igarotzeko proba bakoitza



gainditu beharra dago. Ezin da Proba Idatzia egin Atarikoa gainditu gabe, ezta Ahozko Proba ere aurreko biak gainditu ezean.

Hiru ordu eta bost minutuko denbora tartea dago bi ataletako ariketak egiteko.

Ulermena. Lehenengo atal horretan hiru ariketa daude: *Elkarrizketa- testua*, *Lexikoa* eta *Irakurmena* (bi testu labur eta bat luzea). Horietan guztietan 30 item daude, aukera anitzekoak, hots, a-b-c-d erakoak. Guztira, 20 puntuko balioa du atal horrek. Irakurmeneko itemek puntu bateko balioa dute eta gainerakoek puntu erdikoa. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kentzen. Ez dago gutxieneko puntuaziorik ariketa horietan. Ariketa horiek eta hurrengo ataleko *Esaldiak berridatzi* ariketakoak denak batera (konpentsatuta) biltzen dira.

Proba Idatziko lehenengo atal hori irakurgailu optiko bidez zuzentzen da.

Idazmena. Bigarren atalean ere hiru ariketa egin behar dira: *Idazlan luzea* (iritzi artikulatu bat), *Idazlan laburra* (gutuna, gogoeta, hipotesia, txosten laburra...) eta *Esaldiak berridatzi* (10 egitura).

Idazlan ariketak bideratzeko informazio eta grafiko batzuk eskaintzen dira laguntza gisa. Idazlan bakoitzak gutxieneko luzera bat izan behar du: idazlan luzean, gutxienez, 250 hitz idatzi behar dira; idazlan laburrak, gutxienez, 150 hitz izan behar ditu. Bi idazlanen balioa 20 puntukoa da eta atal hau gainditzeko, bien artean gutxienez 10 puntu atera behar dira.

Atal honetan lortutako puntuak aurreko atalean lortutakoei metatzen zaizkie eta bien artean, gutxienez, 27 puntu lortu behar dira Proba Idatzia gainditzeko.

9. Zelan zuzentzen da Proba Idatzia?

Proba Idatziko lehenengo atala (Ulermena) irakurgailu optiko bidez zuzentzen da, item guztiak aukera anitzekoak baitira, hots, a-b-c-d erakoak.

Gorago esan dugunez, bigarren atalean hiru ariketa egin behar dira: *Idazlan luzea* (iritzi artikulatu bat), *Idazlan laburra* (mezu bat, gutun bat, gogoeta bat, hipotesi bat, txosten labur bat...) eta *Esaldiak berridatzi* (10 egitura).

Bigarren atal horretako ariketak EGAko aztertzaileek zuzentzen dituzte.

Esaldiak berridatzi ariketa taldeka zuzentzen da, modu koordinatuan.

Idazmen-ariketak (Idazlan luzea eta laburra) zuzentzeko prozedura honako hau da: aztertzaileei zoriz eskuratzen zaizkie idazlanak, eta irizpide zehatz batzuen arabera kalifikatzen dituzte. Aztertzaileek ez dute azterketarien informaziorik, atal horretan kode bat erabiltzen baita (azterketa- kodea) azterketarien anonimotasuna babesteko.

Idazmen-ariketa horiei bi zuzenketa egiten zaizkie. Bi aztertzailek aldi berean zuzentzen dituzte modu independentean (batak ez du bestearen zuzenketa berri). Bi kalifikazioen artean *Gai/Ez gai* ezadostasuna gertatuz gero, hirugarren zuzenketa bat egiten da, hori ere independentea. Azkenik, hiru zuzenketak kontuan hartuta jartzen da



azken kalifikazioa.

10. Zelan kalifikatzen da Idazmena?

Aztertzaileak zertan oinarritzen dira idazlanak kalifikatzeko? Honako hiru ardatz hauek dira abiapuntu:

- **Edukia.** Honetan adierazia kalifikatzen da, hots, eskainitako gaia zein neurritan garatu den: gaiarekiko alderdi desberdinak, argudioak, adibideak, hitz kopurua...
- **Moldea.** Adierazpena edo forma kalifikatzen du alderdi honek. Hots, edukia azaltzeko erabilitako moldearen kalitatea: helburuaren arabeko moldea duen ala ez, egitura aberatsak edo sinpleak, lexiko zehatza eta adierazkorra edo desegokia edo urria, ideien eta egituren arteko kohesioa edo lotura, idazkiaren egituraketa orokorra, lerrokaden antolamendua...
- **Zuzentasuna.** Hizkuntza akats nabarmenenen arabeko kalifikazioa, hots, joskerazko zuzentasuna: deklinabide mailako atzizkien erabilera zuzena edo okerra; aditz mailakoa; perpausen egituraketa eta ortografikoa.

Ardatz horietako bakoitzean hainbat zehaztasun biltzen dira, Europako Erreferentzi Marko Bateratuak (EEMB) C1 mailarako finkatzen dituenekin bat datozenak. Izan ere, EGA C1 mailakoa da.

Bada, aztertzaileek ardatz eta zehaztasun horiek guztiak kontuan harturik kalifikatzen dituzte bi idazlanak. Bakoitza 0-10 eskalaren arabera puntuatzen dute, eta bien artean, gutxienez, 10 puntu lortu behar dira gainditzeko.

11. Nolakoa da Ahozko Proba?

Entzutezkoaren Ulermena ariketa da hasiera. Grabazio bat edo batzuk entzun behar dira, behin, eta entzundakoei buruzko galdera batzuei erantzun. Ariketa horrek 10 puntuko balioa du. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen, eta lortutako puntuak ahozko probako gainerako ariketei metatzen zaizkie.

Ondoren, Ahozko Probako mintzamen saioak egiten dira, binaka:

Azalpena	Elkarrizketa
----------	--------------

Azalpena: informazio baten (testu bat) azalpen ariketa da, bost bat minutuan egin behar dena. Ariketa hori prestatu ahal izateko lehenago 20 minutuko denbora tarte bat izaten da, eta orri zuri batean gidoi bat edo apunte labur batzuk har daitezke, gero azalpenean erabiltzeko.

Elkarrizketa: proposaturiko gai baten inguruan eztabaida moldeko elkarrizketan jardun



behar dute bi azterkertariak, bien artean 10 bat minutuan.

Atal hori bi aztertzailearen aurrean egiten da. 40 puntuko balioa du (20 + 20) eta, gutxienez, 20 puntu atera behar dira bien artean atal hori gainditzeko.

Aztertzaileek galderak eginez eta gaiarekin zerikusia duten alderdi batzuk aipatuaz lagundu dezakete. Hala ere, ez da ahaztu behar azterketariei dagokiela hitz egitea eta gaiak garatzea.

Ahozko jardun osoa grabatu egiten da.

12. Zelan kalifikatzen da Ahozko Proba?

Ahozko mintzamen-saioak kalifikatzeko ere aztertzaileek ardatz batzuk dituzte gidari. Eta idazmen-ariketetan bezala, ardatz bakoitzean zehaztasunak daude, Europako Erreferentzi Marko Bateratuak (EEMB) C1 mailarako finkatzen dituenekin bat datozenak.

Ardatz nagusiak honako hauek dira:

Jariora: erritmo naturalean jarduteko gaitasuna

Edukia eta **egokitasuna:** informazio nahikoa / helburu komunikatiboa **Koherentzia** eta **kohesioa:** diskurtsoaren antolaketa / informazioa ordenatzeko / ideiak lotzeko gaitasuna

Konpentsazio estrategiak: itzulinguruak, parafraasiak **Aberastasuna** eta

zehaztasuna: egitura eta lexiko aberatsa, zehatza, egokia / intonazioa, ñabardurak

Zuzentasuna: akats gramatikal gutxi / hitzen ordena egokia / doinu eta ahoskera txukuna

Bi aztertzaileen kalifikazio adostua edo bien batez bestekoa egiten da.

Aztertzaileen artean ezadostasuna gertatuz gero, hirugarren aztertzaile batek kalifikatzen du, saioaren grabazioa baliatuz.

13. Zein Agiri dira EGAREN baliokide?

Gaur egun, EGAREN baliokideak honako agiri hauek dira, hots, EGA eta hurrengo agiriak balio berekoak dira:

- Euskaltzaindiaren behinolako "D titulua"
- Nafarroako EGA eta Iparraldeko agiria
- Hizkuntza Eskola Ofizial batzuetako euskara agiriak, gaitasun mailakoak
- Labayru ikastegiaren agiria
- Euskal Filologiadunak, irakasle eskolen bidez zein fakultateetako euskal adarretan espezializatuak eta ikasketak euskaraz egindakoak
- Irakasleen bigarren Hizkuntz Eskakizuna (HE2)



- IVAP-HAEE edo Administrazio Orokorreko 3. mailako gaitasuna
- HABEren 3. mailako agiria

Zehaztasun gehiago nahi duenak, ikus EHAA, 2010eko azaroaren 15ekoa.

14. Zenbat azterketaldi izaten dira urtean?

Urtean bi deialdi egiten dira. Prozesua honako hau da:

- Matrikula egiteko epea zabaltzen da: lehen deialdirako, urtarril aldera; bigarrena uztailean. Prentsan ere argitaratzen dira horren berri ematen duten iragarkiak.
- Atariko Proba
- Proba Idatzia
- Ahozko Proba

Deialdietako bakoitzak urte erdi irauten du, gutxi gorabehera, zabaltzen denetik ixten den arte. Kontuan izan behar da epe batzuk bete behar direla prozesuan zehar:

matrikula > Atarikoa > zuzenketa > notak argitaratzea > erreklamatzeko epea > Proba Idatzia > zuzenketa > notak argitaratzea > erreklamatzeko epea > Ahozko Proba > notak argitaratzea > erreklamatzeko epea

Hortaz, lehen deialdia urtarril aldera hasten da, eta ekainaren amaieran ixten da; bigarren deialdia, uztailean hasi eta abenduan ixten da.

15. Azterketa batzuk beste batzuk baino zailagoak al dira?

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egiten diren azterketak egun berean egiten dira eta azterketa berbera izaten da.

Atarikoa egiteko bi txanda izanez gero, txanda batetik bestera azterketa ereduak aldatu egiten dira, hots, itemen eta horien aukeren ordena aldaturik egoten da. Baina ez da ariketa desberdinik jartzen. Beraz, ez dago Atariko Proba zailagorik edo errazagorik egun berean.

Proba Idatziaren kasuan, egun desberdinetan izanez gero, azterketak ere desberdinak izaten dira.

Eta deialdi batetik bestera?

EGAk material guztiak analizatuta egoten dira probak egin baino lehenago; eta ondoren analisi zorrotzak egiten zaizkie. Prozedura horrek bermatzen du azterketen artean, edo deialdi batetik bestera zailtasunean edo erraztasunean alde handirik ez gotea.

16. Zenbat kostatzen da EGA egitea?

EGAn matrikulatzeko 21 euro ordaindu behar dira (2017). Azterketaren hiru probak gaindituz gero, agiria eskuratzeko 21,86 euro ordaindu behar dira (2017).



Azken tasa hau, urtero eguneratzen da aurrekontuen Legeak urte bakoitzerako ezarritakoaren arabera.

EHAAn argitaratzen dira, zehaztasunekin.

17. Zenbat kandidatu aurkezten dira?

2010. urtetik aurrera 12.000-13.000 azterketari izaten dira urtero, bi deialdietan.

Urteko 1. deialdia kopurutsuagoa izaten da bigarrena baino.

Aurkezten den jendearen profilari dagokionez, hona datu batzuk: gehienak gazteak dira, emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago, ikasleak asko.

18. Zenbatek gainditzen dute?

Hasteko, esan dezagun matrikula egiten duten guztiak ez direla aurkezten. Aurkezten direnetatik erdiek baino gehiagok gainditzen dute Atariko Proba. Horietatik %60 inguruk gainditzen dute Proba Idatzia. Eta horietatik %90 inguruk gainditzen dute Ahozko Proba.

Prozesu guztiaren amaieran, EGAdunak izena emandakoen ia laurdena izaten dira; hots, %23 inguruk lortzen dute EGA agiria.

19. Nork egiten ditu azterketak?

Azterketa-materialen ardura EGAko Azterketa Batzorde Ofizialaren Zuzendaritzako kideek dute: materialak enkargatu, onartu, aztertu, egokitu, prestatu, pretestatu, behar beste aldiz moldatu...

Materialen alorrean garrantzia ematen zaio prestatzaileek hizkuntz eredu desberdinak biltzeari, esaterako euskara mintzatuko adibideak lurralde bateko zein besteko euskararenak izatea, ahal delarik Euskal Herri osokoak. Kasu batzuetan, bizkaierazko egiturak edo ereduak azalduko dira; baina horiekin batera gipuzkerakoak ere bai; eta Nafarroako, Arabako zein gainerako euskara moldeetatik ere jasoko dituzte. Horiek guztiak ahalik eta modurik egokienean uztartzen ahalegintzen dira zuzendaritzako kideak.

20. Zer neurri hartzen dira azterketa-materialak egitean?

EGAko hiru faseetako materialak egiteko orduan (Atarikoa, Idatzia eta Ahozkoa) baldintza batzuk zehazturik daude. Proba bakoitzerako materialak prestatzeko txosten batzuk daude, eta prestatzaileek horiek dituzte gidari.

Txosten horiek hiru atal dituzte:

- Deskribapen teknikoa



- Zuzenketa-prozesua
- Analisiak

Horrez gainera, material-prestatzaileak EGAko aztertzaile ere badirenez, hurbil-hurbiletik ezagutzen dute C1 mailaren testuingurua.

21. Zein da azterketa-materialen prozesua?

Azterketa-materialen prozesuak hainbat urrats ditu.

Esaterako, *Entzutezkoaren ulermena* ariketan erabiliko diren elkarrizketak aukeratzerakoan, honakoak kontuan izan behar dira: grabazioen kalitatea, solaskideen hizkuntz maila, gaia eta horri emandako tratamendua eta elkarrizketaren iraupena.

Baldintza horiek betetzen dituzten materialekin galderak prestatzen dira. Ondoren, galdera-erantzunak aztertu egiten dira, moldapenak egiteko, egokitzeko...; hots, neurtu behar dutenarekin bat etor daitezten landu egiten dira.

Oro har, Proba Idatziko eta Ahozko Probako materialek bide luzea egiten dute:

hainbat aztertzailek materialak prestatzen dituzte > materialak aztertu egiten dira > egokitu egiten dira > pretestatu egiten dira > sailkatu egiten dira > material desberdinekin azterketa osoak prestatzen dira > azterketak osaturik daudenean, berriz testatzen dira > inprentara eramaten dira.

22. Nortzuk dira zuzentzaileak?

Azterketa Batzorde Ofizialeko (ABO) kideak dira Proba Idatziko Idazmena atala zuzentzen dutenak eta ahozko probak egiten dituztenak. Kide horiek hizkuntzako profesionalak dira denak, irakasleak asko, eta Hezkuntza Sailak izendatuak dira. Izendapena bi urterik behin berritzen da.

Hortaz, aztertzaile kopuru ofizial bat dago lurraldeka eta deialdika antolatua. Azterketarien arabera lurralde bakoitzeko kopurua desberdina da; oro har, azterketari-aztertzaile proportzioa kontuan izaten da. Guztira, 150 bat aztertzaile aritzen dira EGAn Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

23. Zelan zuzentzen dira azterketak?

Atariko Proba. Irakurgailu optiko batek zuzentzen du: erantzun-orriak azkar eta zehaztasun handiz irakurri eta emaitzak berehala ematen ditu programa informatiko batean. Bi aldiz egiten da prozesua, erabat ziurtatzeko.

Proba Idatzia. Proba Idatziko lehenengo atala irakurgailu optikoz zuzentzen da; aztertzaileek ez dute parte hartzen. Idazmena atala zuzentzeko hiru ardatz dituzte oinarri: edukia, moldea eta zuzentasuna. Eta ardatz horietako bakoitzean C1 mailako zehaztasunen zerrenda bat.



Horrez gain, Azterzaileentzako Jardunbidea liburutxoia ere badute azterzaileek. Horretan honako alderdiak biltzen dira: azterzaileen eginkizunak eta eginbeharrak –ABOkide ororenak zein ABOko Zuzendaritzarenak–, azterketa bakoitzerako jokabide-azalpenak, prozedura- oharra, zuzentzeko oharra, birzuzentzeko oharra, zuzentzeko irizpideak, neurketa-fitxak betetzeko oharra eta eranskinak (EGAr buruzko aginduak eta erabakiak).

Azterzaileek idazlanak kalifikatzen dituzte. Originalen fotokopien gainean zuzentzen dute – originalak artxibatu egiten dira–. Azterzaile bakoitzak zoriz suertatu zaion kopuru bat zuzentzen du; aldi berean, kopuru hori beste azterzaile batek ere zuzentzen du. Bi azterzaileek modu independentean kalifikatzen dituzte idazlanak, bata besteara jakin gabe. Bi kalifikazioak bat badatoz (Gai/Ez Gai) batez bestekoa egiten da. Bat etorri ezean, hirugarren zuzenketa bat egin behar da, hori ere independentea. Eta, batzuetan, baita laugarren zuzenketa ere.

Bestalde, esan beharra dago, Proba Idatzian azterketa-kodea erabiltzen baita, azterketak erabat anonimoak direla azterzaileentzat.

Erreklamazioa egitean, edo azterketa ikusteko saioan erakusten dira zuzenketarako erabili diren irizpideak.

Ahozko Proba. Proba hau ere ardatz batzuen arabera eta C1 mailako zehaztasun zerranda batzuen arabera kalifikatzen da. Azterzaileentzako Jardunbidean ere ohar bereziak dituzte azterzaileek, modu bateratuan kalifikatzeko. Mintzamina atalean, bi azterzaileen kalifikazio adostua edo bien batez bestekoa egiten da.

Proba honen kasuan ere, erreklamazioa egitean erakusten dira zuzenketarako erabili diren irizpideak.

Ahozkoaren nota erreklamatu gero, berriz egin daiteke zuzenketa saioaren grabazioa erabilia.

24. Zelan ziurtatzen da azterzaileen arteko bateratasuna?

Gorago zehazturiko prozedurez eta dokumentuez gain, azterzaileek beste lan bat ere egiten dute: Bateratze-saioa.

Bateratze-saioetan parte hartzen dute EGAr azterzaileek. Idazmina eta Ahozko Proba izaten dira langai nagusiak baina, bidez batez, kalifikazioekin eta EGArrekin zerikusia duten hainbat alderdi berrikusteko balio izaten du.

ABOko Zuzendaritzako kideek idazlan-sorta bat aukeratzen dute, eskuarki aurreko deialdietan zuzendu behar izan diren idazlanetakoak edo, ahal denean, indarrean dagoen deialdian zuzendu behar dituzten atzetako adibidetakoak. Sorta horretan era guztietako idazlanak egoten dira: lurralde batekoak zein besteak, kalifikazio ona zein txarra izan dutenak. Horiek aztertzeko eta kalifikatzeko bidaltzen zaizkie azterzaile guztiei. Kalifikazioak eta ohar guztiak bildu, taulak atera eta bilera egiten da. Bileran azterzaile bakoitzak jarritako kalifikazioak eta oharra besteek jarritakoekin erkatzen ditu: aldeak ikusten dira, eta kalifikazioak eztabaidatzen dira. Horrek guztiak irizpideak hurbiltzera eramaten ditu azterzaileak, eta denek jokabide bertsuak eduki ditzaten



laguntzen du.

25. Egiten al da emaitzen analisirik?

EGA azterketa bakoitzaren ondoren analisiak edo iruzkinak egiten dira. Atariko Proba bakoitza egin ondoren azterketa-kopuru esanguratsu bat hartzen da (2.000-3.000 inguru) eta, software berezi baten bidez, item bakoitzaren indizeak ateratzen dira. Hots, aukera bakoitzaren balioa ematen du analisiak: gradazioa (zailtasuna-erraztasuna), fidagarritasuna (helburuarekin bat ote datorren), diskriminazio indizea (maila onekoak eta eskasekoak bereiztea): bai eta azterketa osoarena ere: alpha indizea, neurketa-errore estandarra, desbiderapen estandarra...

Oro har, baietsi behar izaten da aurre-analisiak eta testek aurreikusten zutena gertatu dela. Horrek guztiak material gero eta hobekien egiten laguntzen dio EGAREN Zuzendaritzari, bai eta material-prestatzaileei ere.

Gainera, analisiak ariketaren baten desegokitasun nabarmena (diskriminatzailea, balio negatiboa...) erakutsiko balute, arduradunek neurriak hartu beharko lituzkete notak argitaratu baino lehenago.

Proben, ariketen, aztertzaileen... emaitzen analisiak egitea funtsezko betebeharra da ALTEko kideentzat, eta EGA Europako Hizkuntz Aztertzaileen Elkartearen kide da, 2000. urteaz geroztik.

26. Erreklamaziorik egin daiteke?

EGAKo azterketa bakoitzaren erreklamazioa egin daiteke. Denak ere horretarako dauden epeetan egin behar dira, garaiz, alegia, hurrengo proba edo azterketa ez oztopatzeko.

Atariko Proba. Erreklamazioa egiteko epe bat egoten da eta egiten dena hau da: irakurgailu optikoak atera duen emaitza zuzen dagoela ziurtatu. Horretarako plantilla baten bidez, eskuz eta banan-banan, konprobatzen dira erantzun-orrrian markaturiko erantzunak. Eta emaitza jakinarazten zaio azterketa egin duenari, ahalik eta lasterren.

Irakurgailua ez da erratzen eta, beraz, erreklamazio horietan ez da aldaketarik izaten. Gehienez, marka okerren bat, gaizki ezabatuak... izaten dira deskubritzen diren "akatsak".

Proba Idatzia. Proba hori egin ondoren, kalifikazioak argitaratzen dira, azterketari bakoitzari bereak, bere matrikula gunean, Internet bidez. Hortaz, gainditu ez dutenek zergatia jakin nahi izaten dute. Erreklamazioa egin eta gutun bidez ematen dira xehetasunak. Laster, matrikula gunean ikusi (jaso) ahal izango dira.

Errakuntzaren bat edo aldaketaren bat izanez gero, berehala jakinarazten da Ahozko Proba egiteko aukera. Bestela, azterketa ikusi ahal izateko beste erreklamazio bat egiteko aukera izaten da.



Proba Idatzia ikusi ahal izateko aukera deialdi bakoitzaren amaiera aldera eskaintzen da. Saio horretan zuzentzaileek eginiko markak eta jarritako oharrak ikusi ahal izaten dira. Azterketa egin dutenei bakarrik erakusten zaie, nori berea.

Ahozko Proba. Ahozkoa egiteko bi aztertzaile izaten dira epaimahaian. Bi horiek kalifikatzen dute ahozko jarduna. Aztertzaile bien artean desadostasunik balego, beste aztertzaile batek kalifikatuko luke saioaren grabazioa erabilita.

Ahozko jarduna grabaturik geratzen denez, erreklamazioa eginez gero, azterketa egin ez dioten beste aztertzaile batzuek entzungo lukete grabazioa eta kalifikazioa berretsi edo aldatu. Suspentso izanez gero, aztertzaileek jarritako oharrak jakinarazten zaizkio erreklamazioa egiten duen azterketariari. Hots, aztertzaileek oharrak eta arrazoiak jartzen dituzte proba gainditu gabe utziz gero.

Bestalde, azterketariak eska dezake bere grabazioa entzuteko. Adierazitako tokian, egunean eta orduan entzun lezake azterketariak (berak baino ez) bere ahozko jarduna eta oharrak hartu.

27. Nafarroako eta Iparraldeko EGAK desberdinak dira?

Nafarroako eta Iparraldeko EGA agiriak EAEkoaren parekoak dira. Hizkuntz gaitasuna neurtzeko probak hiru dira denak ere. Hala ere, ariketa batzuk moldez eta luzeraz desberdinak dira eta, ondorioz, baita horiek egiteko denborak ere.

Nolanahi ere, zuzendaritzak harremanetan egoten dira, esperientziak trukatzeko, ariketen balioaz gogoetatzeko, bide berriak urratzeko...; azken baten, irizpideak eta EGAREN maila-batasuna zaintzeko.

28. EGA azterketa norberaren euskalkian egin daiteke?

EGA azterketako materialak, hots, euskarriak, euskara estandarrean edo batuan egoten dira: irakurgaiak, lexiko-ariketak, esaldiak...

Proba Idatzia. *Idazmena* atalean gutun bat idaztea izan daiteke ariketa. Gutun pertsonaletan, hots, adiskide edo gertuko bati zuzenduak direnetan molde berezia erabil daiteke hurbiltasuna adierazteko: bigarren pertsonaren erabilera, eta konfiantza gradua erakusten duten ezaugarriak. Horrela, euskalkian edo hikan idaztea ere egoki da, edo berorika baliatzea. Ortografiak, ordea, estandarra izan behar du. Eta euskalkian edo hikan idatziz gero, maila jasoan egitea eskatzen da; *lagunarteko hizkeran* idaztea ez da onartzen (fonetismoak, hitzen kontrakzioak, bitxikeriak...).

Ahozko Proba. Euskara batua, batez ere idatzizko zereginetarako erabiltzen da; hitz egiteko orduan euskaldun asko nor bere euskalkian erosoago moldatzen dira.

Nolanahi ere, ez da ahaztu behar EGA agiri bat dela eta horrek euskara batua ongi jakitea eskatzen duela. Ahozko Probako Mintzamina atalean bi zati izaten dira eta, hortaz, bi saioetako bat (azalpena) euskara batuan egiteko eskatzen da edo, hobeto esanda, "idatzizko hizkuntza ereditik hurbil dagoen mintzaira-moldean". *Elkarrizketa*



ariketa norberaren euskalkitik hurbilago dagoen moldean egin daiteke, baina beti ere molde landua izan behar du; ez du balio edozein modutako hizkera erabiltzeak: hitzak ondo ebaki edo ahoskatu behar dira, egitura garbiak egin behar dira; egitekotan, euskalki-hizkera txukunean egin behar da saioa, hizketa-laguna ere aintzat hartu behar baita. Elkarrizketa-kideak jarraitu (aditu, ulertu) ezin duen moldea ez da ontzat ematen. Azken batean komunikazioa da funtsa, eta hori ezin da tratatu.

29. Zer behar da EGA ateratzeko?

EGAk ulermen- eta adierazpen-mailako gaitasunak neurtzen ditu (gaitasun hartzaileak eta ekoizleak) eta, beraz, gaitasun horietan maila nahikoa frogatu behar da agiria eskuratzeko: C1 maila, hain zuzen ere.

Datu bat aipatzearen, esan dezagun deialdi bakoitzeko EGako lehen azterketan, geletara sartzeko itxaroten egoten diren azterketari asko erdaraz ibiltzen direla; bigarren azterketara sartzeko multzoka egoten direnen artean nekezago entzuten da erdara; eta, azkenik, ahozko azterketa egiteko itxaroten egoten direnen artean erdararik ia ez da entzuten. Zer esan nahi du horrek? Bada, euskaraz normaltasunez hitz egiten dutenek aurrera egiten dutela eta askok agiria lortzen dutela; euskara ikasi bai baina normaltasunez erabiltzen ez dutenak baliteke behin baino gehiagotan aurkeztu behar izatea agiria lortzeko.

Azterketari batzuek gaizki hartzen dute *Ez gai* nota jasotzea, argudiatuaz beren ikasketa guztiak euskaraz egin dituztela, ikastaro mordo bat egin dutela, txikitatik euskaldun direla, eta abar. Baina esan beharra dago EGA ez dela merezimenduengatik ematen den agiri bat, ez du inoren euskalduntasuna edo euskalduntasunik eza frogatzen... EGAK, ahalik eta modurik profesionalenean euskarazko hizkuntz gaitasuna neurtzen du, C1 mailari dagokiona.

EGA suspenditzeak ez du adierazten azterketariak euskararik ez dakienik, baizik eta C1 mailako parametroetara ez dela heldu. Besterik ez.

Beraz, EGA lortzeko oso lagungarria da lagunartean euskaraz mintzatzea, euskarazko egunkariak eta aldizkariak eta liburuak irakurtzea, euskarazko hedabideekin (irratia, telebista, Internet guneak...) bat egitea. Alegia, euskaraz bizitzan murgiltzea.

30. Notak gordetzen al dira?

Deialdi bateko notarik edo kalifikaziorik ezin da gorde hurrengo deialdirako, deialdi bakoitza berezia delako, ireki eta itxi egiten da epe batean. Epea bukatuta, prozesu guztia abiarazten da berriz.

Horrek esan nahi du proba bat gainditu baina beste bat suspenditu duenak ezin duela eskatu gainditu duenaren nota gorde dadila hurrengo baterako; agiria eskuratzeko proba guztiak jarraian gainditu ezean, prozesu osoari berriz ekin behar dio azterketariak.



31. Ezgaitasunak kontuan hartzen al ditu EGak?

Matrikula egiteko dokumentazioan aukera hori zehazturik dago. Behar diren ziurtagiriak aurkeztu ondoren EGako arduradunek behar eta ahal diren bitarteko guztiak jarriko dituzte ezgaitasunen bat edo balio-urritasunen bat dutenek ere azterketa egin ahal izan dezaten, beren eskubideak errespetatuta.

Aipamen berezia merezi du IBT/CRI erakundeak. Honek bere bitartekoekin laguntza handia eskaintzen die EGako lanetan ari diren arduradun eta aztertzaileei, besteak beste, azterketak itsuei egokitutako moldean jartzen.

Bestela ere, balio-urritasunik izan gabe, azterketa behar duenarengana hurbiltzeko ahalegin berezia egiten du EGak: gaixotasun larrien kasuan –azterketa-guneetara joan ezina–, etxera edo ospitaletara ere bai; kartzeletara, presoetara azterketa bertan egiteko; edo bestelako egoera bereziak ere aintzat hartzen dira eta ahal den guztia egiten da EGA egin nahi duenaren eskubidea errespetatzeko.

32. Nola agertzen da EGaren azken nota?

Azterketa idatziko eta ahozko puntuazioen batuketara egiten da, baina azken kalifikazioa honako hau da: GAI / EZ GAI.

Azken nota horrela izatea eta EGA azterketaren gainerako xehetasunak EHAAn argitaratzen dira urtero.